IRAKURMENA

Ekintza komunikatiboa: Sindikatu batek, egoera jakin bat salatzeko asmoarekin, bere web-orrian argitaratutako jakinarazpena ulertzea.

ELAren ordezkariak Munduko Foro Sozialean

ELAk langile prekarioak antolatzeko beharra aldarrikatu du Munduko Foro Sozialean.

Montrealeko Munduko Foro Sozialean dauden ELAren ordezkariek parte hartu dute prekarietatearen, klima-aldaketaren eta merkataritza-itunen (TTIP, CETA eta abar) aurkako hainbat eztabaidagunetan.

Mikel Novalek, ELAren Ingurumen eta Politika Sozialaren arduradunak, zera azpimarratu du Montrealen: “Langile prekarioak antolatzea da sindikatuen eginbeharra; bai behintzat kapitalak enplegu-munduan inposaturiko aldaketei egoki erantzun nahi badiegu”.
Munduko Foro Sozialean, herrialde askotako sindikatuen jokabidea eman da ezagutzera, eta, Euskal Herrian ELAk egiten duenaren bidetik, argi geratu da langile prekarioek badutela antolatzeko gaitasunik.
Bestetik, klima-aldaketari buruzko mintegi batean, Novalek adierazi du “gero eta sindikatu gehiago daudela klima-aldaketaren aurkako borrokan. Hilda dagoen planeta batean ez dago lanpostu duinik. Justizia sozialean oinarritutako aldaketa sozial eta ekonomikoak nahi baldin baditugu, ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren sistema berri bat bereganatu beharko du sindikalismoak, halabeharrez. Erronka handia da”.
Azkenik, ELAren Nazioarteko arduradunak, Laura Gonzalez de Txabarrik, salatu du “negoziatzen ari diren TTIPak eta antzeko merkataritza-itunek ez dutela helburu merkatua liberalizatzea, baizik eta lan- eta ingurumen-eskubideak murriztea”. Hori horrela, Munduko Foro Sozialean oso argi geratu da beharrezkoa dela itun horien aurkako mobilizazioak mundu-mailan bultzatzea.

ELAren web-orria (2016-08-17)
(http://www.ela.eus/eu/aktualitatea/albisteak)

(Moldatua)